

## Andoaingo ostalaritza bultzatzeko 1.000 kontsumo-bonu berri jarriko ditu Udalak herritarren eskura

- **Kontsumo-bonu berri bakoitzak 30 euroko balioa izango du eta irailaren 6tik 17ra bitartean erosi ahal izango dira, 15 euroren truke, SALKINen lokalean.**
- **Mari Jose Izagirre: “Ekaineko kanpaina egin zuten moduan, andoaindarrei dei egiten diegu tokiko kontsumoaren alde egiten jarrai dezaten, oraingo honetan taberna eta jatetxeetan”.**

Andoaingo Udaleko Ekonomi Sustapen, Enplegu eta Gazteria Sailak prest du *HAN EDO HEMEN, EROSI ANDOAINEN* kanpainaren jarraipena, oraingo honetan, herriko ostalaritza establezimenduetara zuzenduko dena. **Iraila eta urria osoan zehar luzatuko den kanpaina** honetan 1.000 bonu banatuko dira, 30 euroko balioa dutenak eta 15 euroren truke erosi ahal izango dira SALKIN elkartearen lokalean irailaren 6tik 17 bitartean (Agustin de Leiza kalea, 11).

Aurkezpen ekitaldian, Maider Lainez Andoaingo alkateak, Mari Jose Izagirre Sustapen Ekonomiko, Enplegu eta Gazteria zinegotziak eta Maite Ramos SALKIN elkarteo presidentek parte hartu dute, baita Alexander Huitzi, Petri Romero, Txitxu Ruiz eta Pepe Iparragirre ordezkari politikoek ere.

Ikasturte hasierako bigarren ekimen honekin, Udalak herriko merkatari eta ostalariekin hartutako konpromisoari eusten dio, Andoaintzat hain “funtsezkoa” den arlo bati babesa emanez. Mari Jose Izagirre zinegotziak prentsaurrekoan azaldu duenez, ekimenak zuzenean 30.000 euroko zuzeneko gastua aktibatuko du herriko taberna eta jatetxetan, kontsumoaren bitartez”. Hala, hain garai zailetan ostalariei babesa eta laguntza eskaintzeko modu ezin hobea” dela uste du zinegotziak, “enplegua eta jarduera ekonomikoa sortzeaz gain, ostalaritzak herriari bizitza ere ematen diolako”. Oporretatik bueltan, andoaindarrei herriko ostalaritzaren alde egiten jarraitzeko deia luzatzen diegu, bertako taberna eta jatetxeetan kontsumituz eta tokiko kontsumoaren aldeko apustuarekin jarraituz, ekaineko kanpaina egin zuten moduan. Izan ere, egun gutxitan agortu ziren kanpainaren lehen zatiko bonuak, zinegotziak azaldu duenez.

*HAN EDO HEMEN, EROSI ANDOAINEN* kanpainak hirugarren zati bat izango du urte amaieran, Gabonei begira, merkataritza zein ostalaritzako kontsumoa sustatzeko bonuen jaulkipen berri batekin. Lankidetzaz hau antolatuz, Udalak hitzarmen bat sinatu du SALKIN elkartearekin, 118.000 euroko zenbateko ekonomikoarekin, besteak beste, kontsumo-kanpaina horiek bultzatzeko.

Ekitaldia Andoaingo Alkateak itxi du, honakoa adieraziz "Pandemiak markatutako 2020 urte oso gogorraren ondoren, Udalak 2021 honetan ekintza ezberdinak martxan jartzen jarraitzen du, Andoain sozialki eta ekonomikoki suspertu eta bultzada emateko. Lanean jarraitzen dugu eta tokikoaren aldeko apustua egiten dugu; horregatik, herritarrei laguntza eskatzen diegu, guztion artean berriro ere kanpaina arrakastatsua izan dadin".

## **Bonuak nola eskuratu**

Kontsumo-bonuak irailaren 6tik 17a bitartean eta izakinak agortu arte erosi ahal izango dira. Hasierako 1.000 bonoak agortzen badira, udalak bono gehiago aterako ditu ostalaritzari laguntza emateko. Andoaingo adinez nagusi guztiek **30 euroko balioa duen bonu bana eskuratu ahal izango dute, 15 euroko prezioa ordainduz**. Horretarako, NANA aurkeztu beharko dute (gehienez ere, NAN bakoitzeko bi bonu salduko da eta andoaindar bakoitzak bi NANei dagozkien bonuak jasotzeko aukera izango du). Orduategia 10:00etatik 13:00etara izango da goizez, eta 16:00etatik 19:00etara arratsaldez.

Erosketa kreditu-txartelarekin ordaindu beharko da, ez da eskudirurik onartuko. Bonu bakoitza 5 euroko 6 txarteletan banatzen da, eta banaka edo batera erabil daitezke, erosketa batean edo gehiagotan. Bonuaren zenbatekoa ezin izango da eskudiruarekin trukatu, eta erosketaren zenbatekoa bonuaren zenbatekoa baino txikiagoa bada, ez da dirua itzuliko.

**Andoain, 2021eko irailak 3**